



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko azaroaren 27a

112. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Hortz-protesiileen Elkargo Ofiziala sortzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Foru lege proiektua, Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).
- Foru lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).
- Foru lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxez etxeko laguntzaren arloko politikak gara ditzan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko taldeek eta foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxez etxeko laguntzaren arloko politikak gara ditzan, foru parlamentari Mariné Pueyo Danso andreak eta Félix Puyo Rebollo jaunak aurkeztua (8. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ospitaleez kanpoko larraldietarako landa zerbitzu bat sor dezan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erizaintzako laguntzaileen kolektiboko ordezkari sindikalekin negoziazio-mahai bat sor dezan, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako merindadean uraren arazoak konpon ditzan eta Ega ibiaia erregulatzeko plangintza bat presta dezan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean izapidatzea (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren egoera dela-eta, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzentzailearen jarraipenari buruzko dokumentazioa aurkez dezan, Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsia (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Artozkiko Kontzejuan telefono zerbitzua berriz jartzeari buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina (14. or.).
- Galdera, administrazioaren eta sindikatuen artean lorturiko akordioak betetzeari buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Baroja museoa eraikitzeko aukerari buruzkoa, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak egina (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2002ko urriaren 7ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dugu ulertzen zergatik sartu den artikulua hau.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dugu ulertzen zergatik sartu diren zeharbidez Foruzaingorako lan eskaintza publikoari dagozkion neurriak, 2003rako gehienez ere 50 lanpostu ezarritik, aurrekontuetan diru-izendapenik egin gabe, noiz eta Foruzaingoan giza baliabideen aldetik urri dabilzanean eta lanpostu berrietarako deialdiak gelditu daudenean.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Hortz-protzesigileen Elkargo Ofiziala sortzekoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Hortz-protzesigileen Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2002ko urriaren 14ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

“Elkargoaren izen ofiziala Nafarroako bi hizkuntzetan jasoko da”.

Zioak: Elkargoaren izenak Nafarroako hizkuntza errealitatea islatzea.

Foru lege proiektua, Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko azaroaren 28ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2002ko

azaroaren 4ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko abenduaren 27ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2002ko azaroaren 14ko

107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboetako buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboetako buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko abenduaren 27ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua

2002ko azaroaren 12ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko abenduaren 23ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2002ko irailaren 9ko 86. Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxez etxeko laguntzaren arloko politikak gara ditzan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA ETA EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEEK ETA FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko taldeek eta foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu dute: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxez etxeko laguntzaren arloko politikak gara ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarien zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

IUN/NEB, EA/EAJ eta Askotarikoa-Batzarre Parlamentuko taldeek, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute batzordean lehenbailehen eztabaidatu eta bozkatzeko.

Estatistikako Institutu Nazionalak ezgaitasunei buruz eginiko inkestan jasotako datuek erakusten dute Nafarroako biztanleen % 12k, hau da 62.000 pertsonak, ezgaitasun motaren bat dutela; horietatik % 30k, 8.000 pertsona inguruk, etxeko laguntza behar du.

Nafarroan bere buruaz baliatzeko zailtasunak dituzten pertsonen bi bidetatik ematen zaie laguntza: oinarrizko osasun zerbitzuek ematen duten

zuzeneko laguntza eta Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak (NGOI) ematen dituen laguntza ekonomikoak. Mankomunitate bat edo udal bat titularraren oinarrizko gizarte zerbitzuek xede jakin bat dute: lurralde muga jakin batzuk dauzkan herri batean gizarte ongizatea garatzea eta lau programa edo oinarrizko prestazio ematea. Horietako bat etxez etxeko laguntza da. Nafarroako lurralde osoan garatzen den bakarra da. Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak programa horren finantzaketaren % 78 ordaintzen du, baina toki entitateek gainerako % 22 hori baino askoz ere gehiago ordaintzen dute, funtzionamendu gastu arrunt guztiak beren gain hartzeaz gainera: horrek asko igotzen ditu beren gain hartu beharreko gastu erreala.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak eta etxez etxeko laguntza programaren eskariak pixkanaka hazten joan dira herritarren beharrek gora egiten joan diren neurrian; horren ondorioz, 1996an Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak oinarrizko osasun laguntza berrantolatzeke proiektu bat abiarazi zuen NUPekin hitzarmen bat sinatuz, bere garaian profesionalen aldeko balorazioa lortu eta Gobernuak onetsi zituen berrantolamendu proposamenak biltzen dituzten azterlan, ebaluazio eta oinarrizko dokumentuak egiteko.

Hala eta guztiz ere, oinarrizko dokumentuak ez dira espero bezala garatu eta gizarte zerbitzueta-ko profesionalen desadostasun maila handia antzeman dute plangintza egiten duen organismoaren eta organismo kudeatzailearen arteko harremanetan; irudi luke ez daudela biak Gizarte Ongizate kontseilari beraren azpian, gezurrezko kalkulu eta esperientzia pilotuetan artean baitaude etengabe. Hori guztia, Axolaren hitzetan, luzamendutan ibiltzea baizik ez da. Azkenik, NGOIk ahalke bezala bere proposamena jakinarazi du; alegia, xede jakinik ez duten laguntza ekonomiko-

en bitartezko zuzeneko laguntzaren zati handi bat kentzea.

Plan Gerontologikoaren arabera, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua funtsezko baliabide bat da komunitateari arreta emateko, eta horretan etxeko laguntza gizarte zerbitzuen hautazko ez den oinarrizko prestazio bat da, eta 2000rako helburu gisa planteatzen zuen % 5 zuzeneko laguntza eta % 1 laguntza ekonomikoen bidezkoan. Hala eta guztiz ere, Nafarroako batez besteko estaldura, NGOlaren txostenen arabera (Itunen Atala) % 3,31 da zuzeneko laguntzaren bitartez, hau da, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuak ematen duen laguntzaren bitartez, eta % 2,14 laguntza ekonomikoen bitartez. Azterlan horretatik ondoriozta daiteke etxez etxeko laguntza zerbitzuen erabiltzaileen % 37k laguntza ekonomikoak jasoko lituzketela. Aitortzen du, halaber, laguntza mota aldatzen ari dela, eta orain laguntza ekonomiko handiagoak emanen direla, eta etxez etxeko zerbitzua erabiltzaile gutxiagori emanen zaiela; aldaketa horrek, dena den, ez du ematen NGOla asko kezkatzen duenik, zeren eta aldaketa horren ondorio ekonomiko orokorra ia hutsaren hurrengo baita.

Axolak (Nafarroako Gizarte Ongizatea eta Gizarte Zerbitzuak Sustatzeko Elkartea), Gizarte Gaien Batzordean joan den azaroaren 2an eginitako lan bileran, kezka handia erakutsi zuen etxeko laguntzaren ordez laguntza ekonomikoa bultzatzen ari delako. Arrazoi bat baino gehiago azaldu dute Axolakoek joera horren aurka egoteko. Hona garrantzitsuenak:

- Kontusaila deskapitalizatzea, zeren eta laguntza ekonomikoek beren baitan hartu behar baitituzte beste plan batzuen prestazioak, esate baterako Familia Planarenak, familiako bizitza eta lan bizitza uztartzeko jarduketekin.

- Profesionalek ezgaituei eta beren buruaz baliatzeko arazoak dituztenei ematen zieten zuzeneko zerbitzuaren funtzio integral eta integratzailea desagertzen da; izan ere, profesional horiek banakako plan bat betetzen dute, kasu guztietan helburuak ezarri eta jarraipena eta ebaluazioa eginez.

- Laguntza ekonomiko populistak hedatuko dira hobeki dauden gizarte-maila eta ekonomiatarra, dirusarrera gutxi eta gutxieneko pentsioak dituztenen kaltetan.

Zerbitzu zuzenen ordez laguntza ekonomikoak jartzeak zenbait helburu izan ditzake, eta ez du bermatzen mendetasun arazoak dituzten pertsonen behar duten laguntza ematea, ez eta mendetasuna edo ezgaitasunen behar duten pertsonen

ematen zaien zerbitzuaren kalitatearen jarraipena eta ebaluazioa egitea ere.

Ondorio orokorra larriena, zalantzarik gabe, beren buruaz baliatzeko arazoak eta ezgaitasun arazoak dauzkaten pertsonen gaineko erantzukizun publikoa galtzea, eta erantzukizun hori familien eskuetan eta, zehazkiago, emakumeen eskuetan uztea, azken horiek baitira zaintzaileak gehienetan. Antzinako garaietara garamatza horrek, hain zuzen ere emakumeek urtetan doan ordeztu baitituzte erakunde publikoak ematen ez zituzten osasun zainketak eta gizarte laguntza.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du bere gobernu ekintzan, 2003ko ekitalditik aurrera, ondoko politikak gara ditzan.

1. Etxez etxeko zerbitzua oinarrizko gizarte zerbitzuen eginkizun ez-hautazkoa dela aitortzea, eta bermatzea behar diren aurreikuspen ekonomikoak izan behar dituela, behar den finantzaketa iraunkorarekin eta eman behar duten zerbitzuaren eta dauzkaten funtzionamendu gastuen araberratioak eta lansariak dauzkaten gizarte langile eta ahaideez hornituriko plantilla estandar eta nahikoekin, beharrez konplexuei erantzuna emanen dien kalitatezko zerbitzu publiko bat eduki ahal izateko.

2. Ebaluazio lanak eta jarduketa proposamena bere gain hartzea, marko orokor baten barruan, udalak zerbitzua kudeatzeko, laguntza ekonomikoak emateko eta prezio eta tasak ezartzeko eta zerbitzuari eusten herritarrek duten parte-hartzea finkatzeko daukan eskumena aitorturik, toki entitateek laguntza integral eta azkarra eman dezaten, prozesu burokratiko konplexu eta luzerik gabe.

3. Etxez etxeko laguntza zerbitzuei eustea, bere buruaz baliatzeko arazoak eta diru baliabide eskasak dituzten pertsonen laguntzeko, eta jarduketa horiek eta Familiari buruzko foru planean familia eta lan bizitza uztartzeko planteaturiko neurri eta jarduketekin uztartzea, horiek berariazko diru kopurua izan beharko baitute aurrekontuetan.

4. 65 urte baino gehiagoko herritarren % 8ko estaldura-mailara pixkanaka iristeko behar diren neurri tekniko eta administratiboak hartzea, beste kolektibo batzuen estaldura-maila ere igoaraziz, eskarien arabera.

5. Etxean mendetasuna duten pertsonak mantentzeko dauden prestazioak integratzea: Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua, eguneko zentroak,

laguntza teknikoak, garbiketa zerbitzuak, jantokia, laguntza ekonomikoak, begiraleak prestatzea eta boluntarioei laguntza ematea, halako moduan non guztiak bateragarriak izanen diren eta erabiltzaile bakoitzari bere beharrian eta inguruabarren araberatik aplikatu ahal izanen zaizkien.

6. Parlamentura Plan soziosanitarioa igortzea, bi hilabeteko epean, eztabaida eta bozka dadin; bertan, aurreikusitako ekintzak, haiek betetzeko egutegia, aurrekontuko aurreikuspenak eta Osasun Departamentuaren eta Gizarte Ongizate Departamentuaren arteko koordinazio mekanismoak azalduko dira. Marko horretan ezarri behar diren kasuak baloratzeko irizpideak, aplikatu beharreko tresnak eta laguntzarako ezarri beharreko protokoloak.

7. Mendetasunari buruzko foru lege bat prestatzea, Nafarroan mendetasun egoeran dauden per-

tsonek guztiak zerbitzu eta prestazioen multzoak baliatu ahal izan daitezkeen; hartan horietara iristeko bidea, onuradunarentzako konpromisoak eta jarduketaren finantzaketa zehaztu behar dira.

8. Familiako langilea izenpeko titulazio bat sortzeko behar diren ekintzak ezartzea, gehienez ere 400 orduko iraupenarekin.

9. Hurbileko etxez etxeko laguntza zerbitzu sozialetan modu subsidiarioan esku hartzen duten ekonomia sozialeko enpresei laguntza ematea, hartara berma dadin laguntza jasotzen duten pertsonen arreta egokia ematen zaiela, eta, bestalde, etxeko enplegua azalazteko xedez.

Iruñean, 2002ko azaroaren 12an.

Foru parlamentariak: Isabel Arboniés Bermejo, Begoña Errazti Esnal eta Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxez etxeko laguntzaren arloko politikak gara ditzan

FORU PARLAMENTARI MARINÉ PUEYO DANSO ANDREAK ETA FÉLIX PUYO REBOLLO JAUNAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Mariné Pueyo Danso andreak eta Félix Puyo Rebollo jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxez etxeko laguntzaren arloko politikak gara ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarien zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Askotariko Parlamentuko Taldeko Mariné Pueyo Danso andreak eta Félix José Puyo Rebollo jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondokoko mozioa aurkeztu dute,

presaz eztabaida eta bozka dadin Gizarte Gaietarako Batzordean.

Estatistikako Institutu Nazionalak ezgaitasunei buruz eginiko inkestan jasotako datuek erakusten dute Nafarroako biztanleen % 12k, hau da 62.000 pertsonak, ezgaitasun motaren bat dutela; horietatik % 30k, 8.000 pertsona inguruk, etxeko laguntza behar du.

Nafarroan bere buruaz baliatzeko zailtasunak dituzten pertsonen bi bidetatik ematen zaie: oinarriko osasun zerbitzuek ematen duten zuzeneko laguntza eta Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak (NGOI) ematen dituen laguntza ekonomikoak. Mankomunitate bat edo udal bat titularra den oinarriko gizarte zerbitzuek xede jakin bat dute: lurralde muga jakin batzuk dauzkan herri batean gizarte ongizatea garatzea eta lau programa edo oinarriko prestazio ematea. Horietako bat etxez etxeko laguntza da. Nafarroako lurralde osoan garatzen den bakarra da. Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak programa horren finantzaketaren % 78 ordaintzen du, baina toki entitateek gainerako % 22 hori baino askoz ere gehiago ordaintzen dute, funtzionamendu gastu arrunt guztiak beren gain hartzeaz gainera: horrek asko

igotzen ditu beren gain hartu beharreko gastu erreala.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak eta etxez etxeko laguntza programaren eskariak pixkanaka hazten joan dira herritarren beharrek gora egiten joan diren neurrian; horren ondorioz, 1996an Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak oinarrizko osasun laguntza berrantolatzeako proiektu bat abiarazi zuen NUPekin hitzarmen bat sinatuz, bere garaian profesionalen aldeko balorazioa lortu eta Gobernuak onetsi zituen berrantolamendu proposamenak biltzen dituzten azterlan, ebaluazio eta oinarrizko dokumentuak egiteko.

Hala eta guztiz ere, oinarrizko dokumentuak ez dira espero bezala garatu eta gizarte zerbitzueta-ko profesionalak desadostasun maila handia antzeman dute plangintza egiten duen organismoaren eta organismo kudeatzailearen arteko harremanetan; irudi luke ez daudela biak Gizarte Ongizate kontseilari beraren azpian, gezurrezko kalkulu eta esperientzia pilotuetan artean baitaude etengabe. Hori guztia, Axolaren hitzetan, luzamendutan ibiltzea baizik ez da. Azkenik, NGOIk ahalke bezala bere proposamena jakinarazi du; alegia, xede jakinik ez duten laguntza ekonomiko- en bitartezko zuzeneko laguntzaren zati handi bat kentzea.

Plan Gerontologikoaren arabera, SAD delakoa funtsezko baliabide bat da komunitateari arreta emateko, eta horretan etxez etxeko laguntza gizarte zerbitzuen hautazko ez den oinarrizko prestazio bat da, eta 2000rako helburu gisa planteatzen zuen % 5 zuzeneko laguntzan eta % 1 laguntza ekonomikoen bidezkoan. Hala eta guztiz ere, Nafarroako batez besteko estaldura, NGOI-aren txostenen arabera (Itunen Atala) % 3,31 da zuzeneko laguntzaren bitartez, hau da, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuak ematen duen laguntzaren bitartez, eta % 2,14 laguntza ekonomikoen bitartez. Azterlan horretatik ondoriozta daiteke etxez etxeko laguntza zerbitzuen erabilzaileen % 37k laguntza ekonomikoak jasoko lituzketela. Aitortzen du, halaber, laguntza mota aldatzen ari dela, eta orain laguntza ekonomiko handiagoak emanen direla, eta etxez etxeko zerbitzua erabilzaile gutxiagori emanen zaiela; aldaketa horrek, dena den, ez du ematen NGOIa asko kezkatzen duenik, zeren eta aldaketa horren ondorio ekonomiko orokorra ia hutsaren hurrengo baita.

Axolak (Nafarroako Gizarte Ongizatea eta Gizarte Zerbitzuak Sustatzeko Elkartea), Gizarte Gaien Batzordean joan den azaroaren 2an egini-ko lan bileran, kezka handia erakutsi zuen etxez etxeko laguntzaren ordez laguntza ekonomikoa bultzatzen ari delako. Arrazoi bat baino gehiago

azaldu dute Axolakoek joera horren aurka egiteko. Hona garrantzitsuenak:

- Kontusaila deskapitalizatzea, zeren eta laguntza ekonomikoek beren baitan hartu behar baitituzte beste plan batzuen prestazioak, esate baterako Familia Planarenak, familiako bizitza eta lan bizitza uztartzeko jarduketekin.

- Profesionalek ezgaituei eta beren buruaz baliatzeko arazoak dituztenei ematen zieten zuzeneko zerbitzuaren funtzio integral eta integratzaile-lea desagertzen da; izan ere, profesional horiek banakako plan bat betetzen dute, kasu guztietan helburuak ezarriz eta jarraipena eta ebaluazioa eginez.

- Laguntza ekonomiko populistak hedatuko dira hobeki dauden gizarte-maila eta ekonomietara, dirusarrera gutxi eta gutxieneko pentsioak dituztenen kaltetan.

Zerbitzu zuzenen ordez laguntza ekonomikoak jartzeak zenbait helburu izan ditzake, eta ez du bermatzen mendetasun arazoak dituzten pertso- nei behar duten laguntza ematea, ez eta mende- tasuna edo ezgaitasunen bat duten pertso- nei ematen zaien zerbitzuaren kalitatearen jarraipena eta ebaluazioa egitea ere.

Ondorio orokorra larriena, zalantzarik gabe, beren buruaz baliatzeko arazoak eta ezgaitasun arazoak dauzkaten pertsonen gaineko erantzuki- zun publikoa galtzea, eta erantzukizun hori fami- lien eskuetan eta, zehazkiago, emakumeen eskuetan uztea, azken horiek baitira zaintzaileak gehienetan. Antzinako garaietara garamatza horrek, hain zuzen ere emakumeek urtetan doan ordeztu baitituzte erakunde publikoak ematen ez zituzten osasun zainketak eta gizarte laguntza.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober- nua premiatzen du bere gobernu ekintzan, 2003ko ekitalditik aurrera, ondoko politikak gara ditzan.

1. Etxez etxeko zerbitzua oinarrizko gizarte zerbitzuen eginkizun ez-hautazkoa dela aitortzea, eta bermatzea behar diren aurreikuspen ekonomi- koak izanen dituela aurrekontu ekitaldi guztietan, behar den finantzaketa iraunkorarekin eta eman behar duten zerbitzuaren eta dauzkaten funtzio- namendu gastuen araberako ratioak eta lansariak dauzkaten gizarte langile eta ahaideez hornituriko plantilla estandar eta nahikoekin, beharizan kon- plexuei erantzuna emanen dien kalitatezko zerbi- tzu publiko bat eduki ahal izateko.

2. Ebaluazio lanak eta jarduketa proposamena bere gain hartzea, marko orokor baten barruan, udalak zerbitzua kudeatzeko, laguntza ekonomikoak emateko eta prezio eta tasak ezartzeko eta zerbitzuari eusten herritarrek duten parte-hartzea finkatzeko daukan eskumena aitorturik, toki entitateek laguntza integral eta azkarra eman dezaten, prozesu burokratiko konplexu eta luzerik gabe. Horretarako, udaletako etxez etxeko laguntza zerbitzuak finantzatzeko aurrekontu-aurreikuspenak eginen ditu, dagoen eskariaren arabera.

3. Etxez etxeko laguntza zerbitzuei eustea, bere buruaz baliatzeko arazoak eta diru baliabide eskasak dituzten pertsonen laguntzeko, eta jarduketa horiek eta Familiari buruzko foru planean familia eta lan bizitza uztartzeko planteaturiko neurri eta jarduketekin uztartzea, horiek berariazko diru kopurua izan beharko baitute aurrekontuetan. Zerbitzuak etxean mendetasuna duten pertsonak mantentzeko dauden prestazioak integratu beharko ditu: Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua, eguneko zentroak, laguntza teknikoak, garbiketa zerbitzuak, jantokia, laguntza ekonomikoak, begiraleak prestatzea eta boluntarioei laguntza ematea.

4. Nafarroako Parlamentura Plan soziosanitarioa igortzea, bi hilabeteko epean, eztabaida eta

bozka dadin; bertan, aurreikusitako ekintzak, haiek betetzeko egutegia, aurrekontuko aurreikuspenak eta Osasun Departamentuaren eta Gizarte Ongizate Departamentuaren arteko koordinazio mekanismoak azalduko dira. Marko horretan ezarri beharko dira kasuak baloratzeko irizpideak, aplikatu beharreko tresnak eta laguntzarako ezarri beharreko protokoloak.

5. Mendetasunari buruzko foru lege bat prestatzea, Nafarroan mendetasun egoeran dauden pertsona guztiek zerbitzu eta prestazioen multzoaz baliatu ahal izan daitezen; hartan horietara iristeko bidea, onuradunarentzako konpromisoak eta jarduketan finantzaketa zehaztu beharko dira.

6. Familiako langilea izenpeko titulazio bat sortzeko behar diren ekintzak ezartzea, gehienez ere 400 orduko iraupenarekin.

7. Hurbileko etxez etxeko laguntza zerbitzuetan esku hartzen duten ekonomia sozialeko enpresei laguntza ematea, hartara berma dadin laguntza jasotzen duten pertsonen arreta egokia ematen zaiela, eta, bestalde, etxeko enplegua azalazteko xedez.

Iruñean, 2002ko azaroaren 12an

Foru parlamentariak: Mariné Pueyo Danso eta Félix José Puyo Rebollo

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ospitaleez kanpoko larrialdietarako landa zerbitzu bat sor dezan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ospitaleez kanpoko larrialdietarako landa zerbitzu bat sor dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Oinarrizko osasun laguntzako osasun arloko langile laguntzaileen figura nagusiki landa eremuetarako sortu zen, duela 15 urte, oinarrizko osasun laguntzako zentroetako plantillekin laguntza jarraituko lan-ordutegi osoa betetzeko ezintasunaren ondorioz; izan ere, plantilla horrek, gaur egun, laguntza jarraituko 44 gune dauzka, 17 orduko txanda etengabeekin (arratsaldeko 15:00etatik biharamuneko 08:00etara) egun baliodunetan eta 48 ordukoa (larunbateko goizeko 08:00etatik asteleheneko goizeko 08:00etara) asteburuetan: hori guztia ospitalez kanpoko larrialdietako funtsezko atala da.

Medikuntza eta erizaintzaren arloko 130 langile inguru ari dira lan horietan, eta sei hilabetez behin berritzen zaizkie kontratuak; horietako batzuek 10 urte baino gehiago eman dituzte behin-behinekoko eta komodin egoera hori pairatzen, 4 eguneko 24 orduko guardiak ere eginez. Lan egoera hori, noski, aparteko egoera bati zor zaio teorian, baina egiturazko arazo bat da praktikan, eta lotsa emateko moduko lan baldintzak eta baldintza materialak ezkutatzen ditu; esate baterako, norberaren ibilgailua erabili behar izatea batetik bestera joateko eta baita lo egiteko ere, kilometrajea eta erregaia norberak ordainduta.

Horrek ekarri duen higadura pertsonala eta gainerako profesionalekiko aldea nabarmentzeko modukoak dira. Ez dira betetzen ezta foru dekretuz (1/2002 Foru Dekretua) aitorturiko eskubideak ere; esate baterako, oporrak, ezin baitira hartu, langile laguntzaileentzako aplikazioa ez delako ezarri. Ezinezkoak dira barne-hobekuntza edo promozioa, ez dago antzinasunik, ez gradurik, ez familia laguntzarik; lan egindako orduak modu irregularrean aitortzen zaizkie, lanaldi irregular batekin, urtean 1.200 ordutatik 5.000 ordura bitartekoa izan daitekeena; gainera, bi kupo metatzen dira kontratu bakarrerako, zeren eta ahaleginen planifikazioa arautzen duten irizpideak argi eta garbi ekonomizistak baitira eta kontratuak berritzeko erabakiak aukerakoak eta ezberdinak baitira.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ospitalez kanpoko larrialdietarako landa zerbitzu bat era dezan hiru hilabeteke epean gehienez ere, oinarrizko osasun laguntzaren zerbitzu indargarri gisa eta Nafarroako Osasun Zerbitzutik bereizirik, jendeari laguntza jarraitu eta kalitatezkoa emateko, enpleguari egonkortasuna emateko, lan baldintzak berdintzeko, kudeaketa irizpideak batzeko eta beharizan hori foru erkidegoan antolatzeko.

Iruñean, 2002ko azaroaren 14an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erizaintzako laguntzaileen kolektiboko ordezkari sindikalekin negoziazio-mahai bat sor dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erizaintzako laguntzaileen kolektiboko ordezkari sindikalekin negoziazio-mahai bat sor dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarietarik zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuaren Osasun Batzordeari, eztabaidatua eta bozkatua izateko.

Berrogeigarren hamarkadan klinikako laguntzailearen irudia sortu zen, eta berrogeita hamargarren hamarkadan klinikako laguntzailearen irudia arautu zen, erizain-taldeen baitako bihurtuz. Orduz geroz, klinikako laguntzaileek bilakaera profesionala frogatua dute erabat, eta zalantzarik gabe irabazi dute Nafarroako osasungintzan dagokien asistentzia-lekua. Bilakaera profesional honek ez du izan, hala ere, erizaintza zuzendaritzetako ordezkartzan garapen paralelorik.

Duela hilabete batzuk, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, lan bileran, zuzenean entzun eta ezagutu zituen erizaintzako laguntzaileek eginiko eskakizunak. Orduko hartan Nafarroako osasungintzaren kalitatearendako garrantzizkoak ziren gaiak eztabaidatu ziren. Eskakizun horietan azalduko gaiak izan ziren erizaintza laguntzailearen irudia aitortzea, tutorearen eta koordinatzailearen irudia sortzea eta erizaintzako laguntzailearendako Lehen Mailako zerbitzuak irekitzea. Eztabaidaturiko eskakizunen artean zen, orobat, hondarreko urteotan Nafarroako osasungintzan desagertu diren laguntzaile postuena; desagertzearen arrazoia izan da, Nafarroako osasun sisteman laguntzaileek egiten duten lan eskergarenganako ezagutza eza eta gutxiespen borondate nabarmena.

Bestetik, hamarkadak dira erizaintzako laguntzaileek, egun erizaintzako zainketa laguntzako teknikari izenekoek, formatzaile gisa dihardutela. Hala ere, nahiz eta arau-esparruek aitortzen dituzten, zailtasunak dituzte irakaskuntzan aritzeko eta laguntza-zentroetan ezartzeko. Hala, araua atzendu egiten da, lanbide-alor horretako ikasleen kalterako.

Gisa berean, erizaintzako zuzendaritzek eta erdi mailako nagusiek erakutsitako arretarik ezak frustazio sentimendua eragin du erizaintzako laguntzaileen artean. Izan ere, nahiz eta erizaintza taldeetako kide izan, erizaintzako laguntzaileen arazo berezienganako interesik eza nabarmena izan da, eta erizaintzako laguntzaileak eskutik

uzteak zuzenean eta proportzio berean ekarri du onura beste kolektibo batzuekiko.

Erizaintzako koordinatzaileak zuzenean hartu behar du parte erizaintza taldean, eta talde honek proposaturiko helburu eta jardueren prestaketan. Erizaintzako zuzendaritzan egoteak ekarriko du lan-taldeetan parte hartzea, edo erizaintza lanetako edozein lan-aldaketa planetan talde paraleloak antolatzea, erizaintzako laguntzaileen parte hartzea bermatzeko.

Erizaintzako laguntzaileak ez dira gutxi; koordinatzailea izateko besteko profesional talde zabal eta ezinbestekoa da. Koordinatzailea, kolektibo honetako arazoak eta errealitatea ezagutzen dituena

Erizaintzako laguntzaileen kolektiboak erizaintzako zuzendaritza taldeko kide izan behar luke, aukera beharko luke erizaintzako laguntzaileen koordinatzaile postura aurkezteko. Honi gagozkio- la, badira aurrekariak beste eskualde batzuetako osasun zerbitzuetan.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du erizaintzako laguntzaileen ordezkari sindikalekin (SAE) negoziazio mahaia sor dezan, kolektibo honi eta oro har Nafarroako osasungintzari eragiten dizkieten gaiak aztertze-ko. Besteren artean, ondoko gaiak eztabaidatuko dira:

a.- Tutore Koordinatzailearen eginkizunen ezarpena.

b.- Kontsultako erizain laguntzailearen irudien aitortza.

c.- Koordinatzaile eta Tutore irudien ezarketan aurrera egitea.

d.- Lehen mailako arreta zerbitzuetan bide ematea erizaintzako laguntzaileei.

e.- Erizaintzako laguntzaileen artean galdu diren lanpostuei buruzko ikerketa egitea, galera justifikatuz.

f.- Berariazko osagarriaren eta karrera profesionalaren ezarketan aurrera egitea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 14an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako merindadean uraren arazoak konpon ditzan eta Ega ibiaia erregulatzeko plangintza bat presta dezan

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA MENDI BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako merindadean uraren arazoak konpon ditzan eta Ega ibiaia erregulatzeko plangintza bat presta dezan". Mozio hau Nekaza-

ritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean izapidatzea agintzen da. Mozio hori 2002ko urriaren 7ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren egoera dela-eta, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzentzailearen jarraipenari buruzko dokumentazioa aurkez dezan

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak, 2002ko azaroaren 20an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren egoera dela-eta, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzentzailearen jarraipenari buruzko dokumentazioa aurkez dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren egoera dela-eta, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzentzailearen jarraipenari buruzko dokumentazioa aurkez dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-

nua premiatzen du Nafarroako Parlamentuari aurkez diezaion, hiru hilabeteko gehieneko epean, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuraren 1994ko plan zuzendariak biltzen dituen alderdien betetzearen jarraipenari buruzko dokumentazio zehaztua, bai eta plana erabat betetzeko falta diren alderdiak gauzatzeko, bereziki hauexek:

– Langileak. Plantilla erreala eta plantilla organikoan aurreikusiriko lanpostuak egiaz betetzea, bereziki Iruñerako eta Iruñerrirako langileria eta etengabeko prestakuntza eta prestakuntza fisikoren plana.

– Suhiltzaileen parkeak. Parke zentrala eraikitzea Nafarroan, Azkoiengo suhiltzaile parkea, suhiltzaile parkeen erreforma, Aralarkoa eta Miluzekoa (Iruñea) barne.

– Baliabide materialak: Erreskate eta salbamendu lanetarako baliabide tekniko eta materialez hornitzea.

– Baliabide ekonomikoak zerbitzuari eusteko, langile, azpiegitura fisiko eta bitarte material eta teknikoei dagokienez.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Artozkiko Kontzejuan telefono zerbitzua berriz jartzeari buruzkoa

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Artozkiko Kontzejuan telefono zerbitzua berriz jartzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko.

Artozkiko kontzejuko herritarrek herriko telefono publikoan etengabe izaniko matxurengatik Telefónica konpainiari helarazi berri dizkioten keixuen berri eman diote Parlamentuko talde honi. Halaber, eskabide bat aurkeztu dute Nafarroako Gobernuako Telekomunikazio Departamentuan eta Erregistro Orokorrean.

Kontua da zerbitzu ezak bi hilabete baino gehiago iraun duela honezkero. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari ondoko galdera egin nahi diogu:

– Zein urrats eman ditu edo eman behar ditu Nafarroako Gobernuak Artozkiko kontzejuko telefono publikoaren zerbitzua berriz abian jartzeko?

Iruñean, 2002ko azaroaren 11n

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, administrazioaren eta sindikatuen artean lorturiko akordioak betetzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak administrazioaren eta sindikatuen artean lorturiko akordioak betetzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuna izateko.

Administrazioak eta sindikatuek 2002 eta 2003 urteetarako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen lan-baldintzen gainean sinaturiko akordioan, ordainsarien gaineko 2. idatz-zatian, b letran, honako hau esaten da: "Hilabete bakoitzeko lehenengo 70 orduetarako ezarritako diru konpentsazioaren halakoa izanen da gauaz lan egindako ordu guztietarako".

Ondoko lerrokadan honako aipua egiten da: "Igan dez edo jaiegunez lan egiteagatik ezarritako konpentsazioari 100eko 50 gehituko zaio 2002. urtean lan egiten den 34. jaiegunetik hasita eta, 2003. urtean, 33.etik aurrera".

2. idatz-zatiko c) letran honakoa esaten da "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarritzako osasun laguntzako aldeetako mediku

eta erizainen kapitazio osagarria berrikusi eta egokituko da. Erreforma hau 2002. urtean aplikatuko da, Batzorde Paritarioan zehaztu ondoren, eta urtean gehienez ere 1.051.771,18 euro gehituko zaizkio (175 milioi pezeta) osagarri horrek gaur egun suposatzen duen diru kopuruari".

Azkenik, 2. idatz zatiko c) letrako azken eta azkenaurreko lerrokadetan esaten da "Lanpostu-osagarria, % 7koa, bi urteko epean ezarriko dena, gaur egun osagarri hori gabe dauden E mailakoentzat (2002. urtean % 3 eta 2003.ean % 4 gehiago). Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagokionez, portzentaje berean igoko zaie gaur egun % 15eko osagarri berezia duten langileei."

Arestian azaldutakoa ikusirik, eta kontuan izanik 2002 urte hondarrera hurbiltzen ari garela, jakin nahi dugu aipaturiko akordioak zer mailatan bete diren, eta zertan diren egun akordio hauek. Idatzizko erantzuna eskatzen dugu.

Iruñean, 2002ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete

Galdera, Baroja museoa eraikitzeko aukerari buruzkoa**FORU PARLAMENTARI JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an egindako bilkuran, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak Baroja museoa eraikitzeko aukerari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuna izateko.

Julio Caro Baroja jauna zendu ondotik, Barojatarren museoa egiteko aukera aztertu zen. Egoitza horrek museo izaera izanen luke, bisitatzeko

modukoa, eta Pío Baroja, Ricardo Baroja eta Julio Caro Barojaren lanetako elementu eta erreferentziek osatuko lukete. Museo honek Barojatarren ondare intelektual guztia hartuko luke, Baroja familiak Nafarroari utzitako ondare kultural eta intelektual gisa. Nafarroa eta Bera horren loturik egonik familia honen lan artistiko eta intelektuala-ekin, interes handikoa da oraino bai Nafarroa eta bai Berarendako aukera hau. Azpiegitura honen eraikuntzak aitzinamendurik izan ez duela eta, honako galdera hau egiten dugu.

1.- Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu ditu Beran Barojatarren museoa eraikitze aldera?

2.- Nafarroako gobernuak izan ditu hartu emanak Baroja familiarekin, museoa eraiki ahal izateko?

3.- Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak eraiki ahal izanen dela Baroja familiaren museoa Beran?

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	